

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/12/03 Arratsaldeko 18.00-18.30</p>	
---	---	---

Gaurkoa, 2009ko Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldearen bigarren bilera izan da. Ekintza planaren berrikuspenarekin jarraitzeko geratzen ziren lau gaiak lantzea aurreikusten genuen.

Honako hauek bildu gara

Danel Etxeberria (Itsasondoko Udala), Iker Galparsoro eta Iker Azurmendi (Goieki) eta Leire Garmendia, Zuberua Jauregi eta Rosa Aurkia (LAIA S.Coop.).

Lanarekin hasiz...

Goiekiko eta Laia, S.Coop.-eko ordezkariak kenduta, Udaletxe batetik bakarrik egon da ordezkariak. Ingurumena lan-taldeko beste bileretan parte hartzea ez da oso handia izan baina bilera honetako bezain eskasa ez da inoiz izan.

Bilera honetan bi erabaki hartu ziren:

- Bileretan lantzen diren gaiak, ekarpenak edo proposamenak aktan jasotzen jarraituko dira, baina bileretara etorri ez diren pertsonak aurrez egindako ekarpenak ez dira jasoko. Hauek Goiekin landuko dira eta gero, erabakiko da ekintza planean sartuko diren ala ez. Foroetara etortzen diren pertsonak egindako ekarpenak eta etorri ez direnen ekarpenak era berean jasotzeak, bileretara etorri direnen esfortzua gutxiagotu dezakeela pentsatzen dugu eta hori sahiesteko lehenago aipatutako erabakia martxan jarriko dugu.
- Urtarrilean egin behar zen bilera bertan behera uztea erabaki da. Hirugarren eta azken bilera honetan, ekintza planeko ekintzen lehentasuna adostea aurreikusten genuen. Azkenean, bilera berri bat ospatu beharrean ekintzen priorizazioa ondoren azaltzen den metodologiaren bitartez egingo da. Ondoren, landuriko proposamena foroko kideei bidaliko zaie beraien ekarpenak jasotzeko asmoz.

Laia, S. Coop.-ek ekintza planeko ekintzen lehentasuna zehazteko metodologi bat erabiltzen du, metodologi hau bere garaian Agenda 21eko Udaltalde pilotuan erabilia izan zen. Metodologi honetan irizpide ezberdinak azaltzen dira.

Irizpideak 2 taldetan sailkatzen dira:

<p>A mailako irizpideak (iraunkortasunezkoak): Tokiko Agenda 21aren funtsa errespetatzea dakarten irizpideak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> IE (Ingurumenean Eragina) BE (Biztanleriarengan Eragina) 	<p>Irizpide hauek honako taula honetan deskribatzen dira:</p> <p>A TALDEA:</p>
	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>1 / 3</p>

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/12/03 Arratsaldeko 18.00-18.30</p>	
---	---	---

IE	Ingurumenean Eragina
0	Programa garatzeak ez du ingurumenaren arlo bakar batean ere eragin baikorrik (ura, atmosfera, lurzorua,...)
1	Programa garatzeak garrantzi gutxiko eragin baikorra du ingurumenaren arloetako batean
2	Programa garatzeak garrantzi handiko eragin baikorra du ingurumenaren arloetako batean edo garrantzi gutxiko eragin baikorra du ingurumenaren 2 arloetan baino gehiagotan.
3	Programa garatzeak garrantzi handiko eragin baikorra du ingurumenaren 2 arlo baino gehiagotan.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak	

BE	Biztanleriarengan Eragina
0	Programa garatzeak biztanlegoaren gutxiengoko sektore batean eragin baikorra du eta maila ez oso esanguratsuan.
1	Programa garatzeak biztanlegoaren gutxiengoko sektore batean eragin baikorra du eta maila oso esanguratsuan edo garrantzi handiko sektore batean eragin baikorra du eta maila ez oso esanguratsuan
2	Programa garatzeak biztanlegoaren garrantzi handiko sektore batean eragin baikorra du eta maila oso esanguratsuan edo biztanlego guztiarengan eta udalerriz gaindiko eraginarekin baina maila ez oso esanguratsuan
3	Programa garatzeak biztanlego guztiarengan, udalerriz gaindiko eraginarekin eta maila oso esanguratsuan.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak	

JEE	Jarduera Ekonomikoengan Eragina
0	Programa garatzeak ez du jarduera ekonomiko bakar batean ere eragin baikorrik.
1	Programa garatzeak eragin baikorra du udalerriko jarduera ekonomiko batzuetan baina maila ez oso esanguratsuan
2	Programa garatzeak eragin baikorra du udalerriko jarduera ekonomiko batzuetan eta maila oso esanguratsuan edo udalerriko jarduera askorengan eragin baikorra du baina maila ez oso esanguratsuan.
3	Programa garatzeak eragin baikorra du udalerriko jarduera askorengan eta maila oso esanguratsuan.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak	

B TALDEA:

IA	Programa ez garatzeak eragiten duen Ingurumen Arriskua

	Eskualdeko Agenda 21	
2 / 3		

0	Programa ez garatzeak ez dakar inolako Ingurumen Arriskurik
1	Programa ez garatzeak Ingurumen Arrisku baxu bat dakar, Udal Larrialdi Planean identifikatu ez dena eta bere eraginak ez du udalerrriaren osotasuna hartzen.
2	Programa ez garatzeak Ingurumen Arrisku ertain bat dakar, Udal Larrialdi Planean identifikatu ez dena eta bere eragina udalerrriaren mugetara iristen da edo Programa ez garatzeak Ingurumen Arrisku altu bat dakar, Udal Larrialdi Planean identifikatu ez dena edo/eta bere hedadura udalerrriaren mugetara iristen da
3	Programa ez garatzeak Ingurumen Arrisku osos altua dakar edo Udal Larrialdi Planean identifikaturik dago eta bere hedadura udalerrriaren mugetatik haratago doa.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak. Ematen zaion balioa 3-a bada zuzenean lehentasunezkoa izango da.	

EA	Programa Exekutzateko Aukera
0	Programaren garapenerako baliabide ekonomiko, tekniko eta personal nahikoa dago Ekintza Planaz gain.
1	Programaren garapenak koordinazio lan eta desgaste handia eskatzen ditu eta ez du eragin eredugarririk edo erakusgarririk .
2	Programaren garapenak koordinazio lan eta desgaste handia eskatzen ditu baina eragin eredugarri eta erakusgarriak ditu edo exekuzio errezekoa da nahiz eta ez izan eragin eredugarririk edo erakusgarririk .
3	Programaren garapen/exekuzioa erreza da eta eragin eredugarri eta erakusgarriak ditu.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak. Ematen zaion balioa 3-a bada zuzenean lehentasunezkoa izango da.	

LB	Programa garatzeak dakarren Lege Betetze maila
0	Programaren garapenak ez du indarrean dagoen eta aplikagarria den Legezko Arauen betetzea ekartzen.
1	Programaren garapenak indarrean dagoen eta aplikagarria den Legezko Arauen betetzea dakar.
Balio geroz eta altuagoa izan lehentasun handiagoa izango du programak. Ematen zaion balioa 1-a bada zuzenean lehentasunezkoa izango da.	